

Apartamentuak adinekoentzat - Betekizunak

Etxebizitza premia

Etxebizitza premia

Bizikidetza unitateko pertsona guztiek ez dute etxebizitzarik eduki behar jabetzan, jabetza soilean, azalera eskubidean edo usufuktuan.

Salbuespenak:

A atala:

- 1) Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokiaren gutxienezko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan ezarritako gutxienezko bizigarritasun-baldintzak ez betetzea, betiere gabezia horiek zuzentzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez bada.
- 2) Banantze, dibortzio edo izatezko bikotea azkentzeko prozesu baten ondoren, etxebizitzaren erabilera eskusiboa beste ezkontideari edo bikotekideari esleitu izana epai judizial irmo baten bidez, judizialki onartutako hitzarmen arautzaile baten bidez edo eskritura publiko baten bidez, banantze edo dibortzio notarialaren kasuan.
- 3) Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan aurreikusitako irisgarritasun-baldintzak ez betetzea, higiezinaren titularrek — jabetza osoko erregimenean, azalera-eskubidean edo gozamen-eskubidean — 65 urte baino gehiago dituztenean, mugikortasun urri iraunkorra dutenean, edo mugikortasun urriko egoera horrek haiekin bizi den pertsonaren bati eragiten dionean.
- 4) Bizikidetza-unitatea osatzen duen pertsona bakoitzeko 15 metro koadro baino gutxiagoko azalera erabilgarria izatea. Ondorio horietarako, bizikidetza-unitatea honako hauek osatzen dutela hartuko da kontuan: etxebizitza jabetzan, azalera-eskubidean edo alokairuan eskuratuko duenak, haren ondorengoek eta tutoretzapean dauden pertsonak, bere etxebizitzan gutxienez urtebete lehenago errolatutako aurrekoekin batera.

B atala:

- 1) Ezin izango dira bizitegi-sistema babestura sartu etxebizitza baten baino gehiagoren jabeak, azalera-eskubidearen edo gozamen-eskubidearen titularrak, ez eta etxebizitza hori osatzen duten pertsonetako bat kide den bizikidetza-unitate batekoak direnak ere, nahiz eta horiek guztiak A apartatuan aurreikusitako egoeraren batean egon.
- 2) Hala ere, etxebizitza bat eskuratu ahal izango dute A apartatuko egoeraren batean dagoen etxebizitza baten eta B apartatuko beste etxebizitza baten jabeek, azalera-eskubidearen edo gozamen-eskubidearen titularrek edo bizikidetza-unitateko kideren batek.

Salbuespenen aplikazioa:

- 1) Ezin izango dira bizitegi-sistema babestura sartu etxebizitza baten baino gehiagoren jabeak, azalera-eskubidearen edo gozamen-eskubidearen titularrak, ez eta etxebizitza hori osatzen duten pertsonetako bat kide den bizikidetza-unitate batekoak direnak ere, nahiz eta horiek guztiak A apartatuan aurreikusitako egoeraren batean egon.
- 2) Hala ere, etxebizitza bat eskuratu ahal izango dute A apartatuko egoeraren batean dagoen etxebizitza baten eta B apartatuko beste etxebizitza baten jabeek, azalera-eskubidearen edo gozamen-eskubidearen titularrek edo bizikidetza-unitateko kideren batek.

→ **Zuzkidura bizitoki baten esleipendun** diren mugikortasun urriko pertsonen edo 70 urtetik gorakoen kasuan —Donostian jabetzako, azalera jabetzako, usufuktuko edo antzeko etxebizitza baten titular badira, hiri inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruz indarrean dagoen araudian jasotako zehaztapenak betetzen ez dituen eraikin batean—, **euren etxebizitza** Donostiako Etzegintza Enpresa Erakunde Publikoari **lagatzeko eskatuko zaie**, gehienez ere 6 hilabeteko epean, Erakundearen etxebizitza eskatzen dutenei apartamentua errentan ematen zaienetik zenbatzen hasita.